

# **BALOREZKO PROPOSAMENA**

Gure taldeak aukeratutako ideia, Pankreas artifizial baten patentea da. Kontuan izanda Diabetesa gaixotasun kroniko eta hedatu bat dela, laguntza handia izango litzateke pankreas artifizial bat sortzea, gaixotasun hori duen jendearen bizitza errazteko eta intsulina-glukagoi ziztada kopurua murrizteko.

Gure asmakizun honekin diabetikoek bizitza hobea izango dute, erraztasun gehiagorekin eta egunero ziztatze beharrik izan gabe. Medikuntza arloan aurrera-pausu garrantzitsua izango da. Baina alde negatiboa ere badu: kirurgia beharrezkoa da, orban geratuko zaio gaixoari eta errekuperatzeko prozesu bat jasan beharko du. Hala ere, diabetiko batek jasan behar dituen zailtasunak egunero, orban batekin alderatuta, orbanak ez dauka garrantzia handirik. Hori frogatzeko, web orri askotan aurki ditzakegu Diabetesaren zailtasunak azaltzen dituzten baieztapenak, zientzian oinarrituak.

- <https://medlineplus.gov/spanish/diabetescomplications.html>
- <http://diabetesdietas.com/decalogo-la-diabetes-graves-problemas/>